

han-hemen

**Putinen alabak
Berlusconiren
Sardiniako etxera
joan dira udaz
gozatzer**

Vladimir Putin Errusiako presidentearen bi alaba gazteak Italiako lehen ministro Silvio Berlusconi ohorezko gonbidatuak dira, eta Sardinia uhartean duen Porto Rotondoko etxean dira. 18 urteko Masha Putin eta 17 urteko Katia Putin lehen ministroaren alaba gazteenen (Barbara eta Eleonora Berlusconi) gonbidatuak dira. Gurasoek bezalaxe, gazteek ere harreman onak dituzte. Uhartean bertan egun bizkartzain asko dagoenez, Putin Porto Rotondora joan daitekeela pentsatzen du jendeak.

**Carlos Menem,
Argentinako
presidente ohia,
bainugelako ezbeharra
gainditzen ari da**

Bainugelan zegoela, Carlos Menem Argentinako presidente ohia erori egin zen, eta era askotako zauriak egin zituen. Ezbeharra presidente ohiaren jaioterrian izan zen, Anillaco izeneko herrian, eta Buenos Airesera joan behar izan zuen medikuarengana. Menemek behin baino gehiagotan erakutsi du berriro ere Argentinako presidentetza lortzeko asmoa, eta gertaerari etekina atera nahi izan dio. 72 urte bete dituen agintari ohiak parte hartu du hainbat telebista saiotan, gertatutakoaren berri zuzenean emateko. Datorren maiatzean, Alderdi Justizialistako hautagaia izango da.


**Marilyn Monroeren oroimenak sendo dirau**

Egun hauetan, Marilyn Monroe aktore ezagunaren heriotzaren 40. urteurrena gogoratzen ari dira.

Aktorearen milaka jarraitzailek haren hilobia bisitatzea joaten jarraitzen dute. Janet Valentin —argazkian—, esaterako, Kanadatik joan da Los Angeles hirira.

**Valentzian izaten den Campus Partyra hiru
mila lagun bildu dira aurten**

Valentziako Unibertsitatara joan diren hiru mila lagunek Interneten nabigatzeko aukera izan dute 24 orduz, etengabe. Nabigatzen luze aritu ondoren, hutsuneak ikus daitezke zenbait eserlekutan.

**Munduan dauden ordulari garestienak
Txinako mintegi batean ikusgai**

Egunotan, ordularien inguruko mintegia egiten ari dira Txinako Pekinen. Bertan, argazkiko *Blancpain* 1735-a ikusi ahal izango da. Ordulari horrek 769.000 dolar balio du, eta 30 bakarrik daude munduan.

**Geoffrey Rush
aktoreak antzerkia
utzi du, film batean
parte hartzeko**

Geoffrey Rush aktore australiarak ez du gehiago parte hartuko *Godoten esperoan* antzezlanean, Johnny Depp aktorearekin batera film batean lanean hasi delako. Sydney 2003 jaialdiko zuzendariak jakinarazi duenez, Samuel Becketten antzez-lana ematen jarraituko dute orain arte bezala, baina aktore australiarren lekua John Gabenek beteko du. Filma Walt Disney ekoizpen etxeak ekoiztuko du, eta, seguruenik, datorren urtean aurkeztuko dute.

**Bi pertsona hil dira
Vietnamen, itsas
trikua jan dutelako**

Itsas trikua gaizki prestatu izana omen da Vietnamentan izandako bi laguneren heriotzaren arrazoi nagusia. Ospitalera bidean hil dira biak. Dirudenez, beste batek bizia salbatzea lortu du, nahiz eta pozoia irentsi zuen. Itsas trikua Vietnamentan ohi den arraina da. Baina batzuek pozoia izaten dute, eta gizakiarentzat hilgarria izaten da.


**Jatorri latinoko
gazteak Asian esklabo**

Anita Alvarado *Txileko Geisha* ezagunak esan du ez duela itzuliko iruzurren bidez senarrarengandik jasotako dirutza, «jasandako guztiaren ordaina baita». Urteak zeramatzan japoniar batekin ezkondu, eta Asian esklabo izan dutela adierazi du.

hilberriak

E S K E L A K

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222
publi@egunkaria.com